


Jasangarritasunerako hezi

Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida

CEIDA



Argitaraldia: 2002ko azaroa

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila

Egilea: Asun Fernández Ostolaza

Diseinu eta konposaketa: Txakel (Azpiazu-Urarte S.L.)

Itzulpena: Bitez-Logos

L.G: SS-1285/02

ISBN: Eskolako Agenda 21 • 84 - 89888 - 31 - 0

Paper birziklatua

2306-002



Sabin Intxaurreaga Mendibil

*Lurralde Antolamendu eta
Ingurumen Sailburua*



Anjeles Iztueta Azkue

*Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailburua*

ESKOLAKO AGENDA 21aren zabalkundea eta aplikazioa, Euskadiko ikasleak garapen jasangarriaren ildoan prestatzeko xedez, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak landutako Ingurumenari buruzko esparru-programarekin Eusko Jaurlaritzak hartu duen konpromisotik sortu da.

JASANGARRITASUNERANTZ BIDERATUTAKO ESKOLAKO GIDA DIDAKTIKOA aurkeztuko diegu hemen hezkuntza-komunitateko agente guztiei, Eskolako Agenda 21a aplikatzean eman behar diren urrats guztiak adieraziz, bai eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera beren eskuetan jartzen dituen baliabide didaktiko guztiak ere azalduz.

Jasangarritasuna lortzeko bide horretan hezkuntza-komunitateak, gida hau diseinatu duten aipatutako sail horien laguntzaz gain, Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegien (IIHII) laguntza ere izango du, izan ere hauek urte askotan zehar jasotako esperientzia egiaztatua baitute ingurumen-hezkuntzaren arloan. Azkenik, Eskolako Agenda 21aren aplikazioa udalen funtsezko helburuetako bat da TOKIKO AGENDA 21aren osagai gisa. Horregatik, Eskolako Agenda 21a aplikatzea erabakitzen duten ikastetxeek beren udalen laguntza izango dute zalantzarik gabe.

Gizakien arteko eta orokorrean gizakien eta naturaren arteko harremanak egungo desoreka gaindituko duen etorkizuna eraikitzeko, oso garrantzitsua da garapen jasangarrirantz bideratutako hezkuntza; beraz, gure sailen bitartez Eusko Jaurlaritzaren konpromiso hori berritu dugu, IIHIIen eta arduradun diren udalen laguntza tekniko eta estrategikoarekin ESKOLAKO AGENDA 21 abiaraziz eta, horrela, hezkuntza-sistemaren eskariei eta premiei erantzunez.

Eskolaren ordua

Eskola-ordezkaria



Eskolak gizartearen eta ingurumenaren premiei erantzun nahi badie, ingurunearekiko irekiagoa izan behar du, ingurunea ulertu eta bertan esku hartzeko ezagutzak eta gaitasunak ezarri behar ditu eta bere inguruko ingurumenaren hobekuntzarekiko konpromisozko jarrerak eta baloreak sustatu behar ditu.

Eskolako Agenda 21aren plangintzarako gidak, hain zuzen, jarraibide batzuk eskaini nahi ditu ildo horretan, tokiko jasangarritasunaz arduratzen den eskola baten zergatia aztertuz eta hobekuntzarako hezkuntza-proiektuak burutzeko jarraibideak planteatuz; izan ere, proiektu horiek lagunduko digute parte-hartze handiagoa izango duten eta tokiko jasangarritasun horrekin eta bidezko garapenarekin konprometituago egongo diren ikastetxeak eraikitzen.

Aurkibidea

1. atala. Eskolaren ordua.

- 1.a Jasangarritasunerantz bideratutako heziketa.
- 1.b Tokiko Agenda 21
- 1.c Ikastetxeak eta Tokiko Agenda 21

2. atala. : Eskolako Agenda 21. Eskolarentzako gida.

- 2.a Zer da Eskolako Agenda 21?
- 2.b Zein dira Eskolako Agenda 21aren helburuak?
- 2.c Zein gai lantzen ditu Eskolako Agenda 21ak?
- 2.d Nork eta nola parte hartzen du Eskolako Agenda 21ean?
- 2.e Nola antolatzen da Eskolako Agenda 21?
- 2.f Nola ebaluatzen da Eskolako Agenda 21?

3. atala. Baliabideak eta informazioa

- 3.a. Material didaktikoa eta helbide elektroniko interesgarriak.
- 3.b. Ingurumen-hezkuntzako ekipamenduak.

4. atala. Lan-oharrak

"Jasangarritasunerantz bideratutako heziketa"

Eskolak gizartearen eta ingurumenaren premiei erantzun nahi badie, ingurunearekiko irekiagoa izan behar du, ingurunea ulertu eta bertan esku hartzeko ezagutzak eta gaitasunak ezarri behar ditu eta bere inguruko ingurumenaren hobekuntzarekiko konpromisozko jarrerak eta baloreak sustatu behar ditu.


Ingurumenaren arazo zehatzak konpontzera bideratutako ingurumen-hezkuntzak, ezagutzak, errespetuzko baloreak eta prozedura teknikoak garatzeaz gain, ingurunean eragina duen komunitatearen praktika ere badakar berarekin.

Komunitatearen praktika honek besteak beste eskatzen du gizarte-ongizateko alderdiei garrantzi handiagoa ematea, ikasleak negoziatze-eraketarako behar diren trebetasunetan prestatzea, foroetan, erabakiak hartzeko unean, etab. parte hartzea, komunitatearen al-



deketa-prozesuetan gehiago inplikatzea eta hirikideei dagokienez erantzunkidetzako eta kaltetuenei dagokienez elkartasuneko etika bat ahalbidetzea.

Gizarte osoak eta hezkuntza-sistemak berak ere ahalegina egin behar dute bakearen, justizia sozialaren eta jasangarritasunaren ideletara hurbiltzeko; eta bide horretan tokiko ekimenak eta Eskolako Agenda 21 baliagarriak izango dira parte hartzeko foro gisa eta kudeaketa hobetzeko eta gazteen ezagutzak areagotzeko tresna gisa.



Arazo orokorreari erantzuteko, behar-beharrezkoa da tokiko arazoei erantzutea eta, beraz, hiri bakoitzean aurrera eginez, ondoren Planeta osoa hobetzen lagunduko dugu.

AGENDA 21 1992an Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian parte hartu zuten 175 herrialdeek Rio de Janeiron sinatutako dokumenturik garrantzitsuena da. Gure planetan bizitza mantentzen duten sistemak zaintzeko eta lurra etorkizuneko belaunaldiari erabili eta bertan bizi ahal izateko moduan uzteko ekintza-plan bat da. Ekintza-plan hau gobernuek, Nazio Batuetako erakundeek, enpresek, bestelako instituzioek eta beren jarduerekin ingurumenarean eragina duten bestelako taldeek aplikatuko dute.

1994an, Agenda 21ak tokiko erakundeentzako ezarritako jarraibideen ildotik, Aarlborg-eko Gutuna sinatu zen. Gutun hori izan zen beren lurraldeen jasagarritasunaren alde Europako hainbat hiritan



hasitako kanpainaren abiapuntua.

Tokiko Agenda 21 komunitateko gizarte- eta ekonomia-eragile guztien parte-hartzean oinarritzen da, ingurumen-egoeraren diagnostia egiten du eta tokiko edo eskualdeko jasagarritasuna lortzera bideratutako neurriak planifikatzen ditu. Lurraldeko natura-baliabideak eta biodibertsitatea, gizarte- eta ekonomia-garapena, energia, hondakinak, trafikoa eta garraioa, osasuna eta ingurumen-arriskuak, eta hiritarren prestakuntza eta parte-hartzea dira aztertu eta planifikatzen dituen arloak. Gai hauei dagokienez, ingurumenaren adierazle batzuk erabakitzen dira urtetik urtera izandako hobekuntzak eta lortzeko geratzen dena ebaluatzeko.


Euskadiko gero eta herri gehiagotan egiten ari denaren adibide bat



Tokiko Agenda 21ari buruzko informazio-bulegoak sortzea



Lan Foroak antolatzea




Lan Metodologia aplikatzea.

Ikastetxeek Tokiko Agenda 21etan parte hartzeak garapen jasangarriarekin konprometitutako hezkuntza-praktika bat izateko aukera eskaintzen du.

Agenda 21ak defendatzen dituen jasangarritasunerantz bideratutako ekimenak maila desberdinetan garatu behar dira: banakakoa, eskolakoa, tokikoa, nazional edo eskualdekoa eta nazioartekoa, baina ez modu bakartuan, talde sozialen arteko itunak sortuz baizik, hau da, beste herrikide batzuekin tokiko jasangarritasunaren alde hiritarren foroetan parte hartuz eta, aldi berean, bakoitzari dagokion esparruan, alegia etxe, enpresa, erakunde edo elkartean, ingurumena errespetatzen duten kontsumo-formak eta elkarrekin erabakiak hartu eta parte hartzeko prozesu demokratikoak ezarriz.

Agenda 21ak dituen konpromisoko eta jarduerako bi eremu horiek are nabarmenagoak dira ikastetxeetan, bertan sendotzen baita aztura eta jokabideen sustapena eta lorpena; eta izan ere, aztura eta jokabide horiek garapen jasangarria eraikitzen bidera daitezke, ezinbestekoa da ikastetxeetako

Eskola Foroa




kultura balore hauekiko koherentea izatea, hau da, ikastetxeetan ekologiaren aldetik osasuntsu izango den konfiantzazko giroa izatea, hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien parte-hartzea indartzea eta inguruko ingurumenari eta gizarteari dagozkien gai premiazkoenak aztertzeari ekitea.



Udal Foroa Tokiko Agenda 21

Tokiko Agenda 21ek gaur egun eragin duten hiritarren eta erakundeen mugimenduak ikastetxeen parte-hartzea eta hauetan Eskolako Agenda 21en bitartez norabidea jasangarritasunerantz aldatzea bultzatzen dezake. Udal askok mobilizatutako baliabideak eta urte urte esperimintatutako metodologia-prozesua baliagarriak izan daitezke orain jasangarritasunarekiko koherente den praktikari ekin nahi dioten ikastetxeentzat. Ondoko koadroan prozesu horiek nolakoak izan daitezkeen eta beren paralelotasunak eta loturak zein diren ikus daitezke.

Tokiko Agenda 21



Eskolako Agenda 21 Eskolarentzako gida



Jendeak ingurumenaren krisiarekiko duen sentsibilizazio-maila nabarmen handitu da azken hiru hamarkadetan. Orain hobeto jabetzen gara gure planetak dituen mugez eta "mundu bakar batean" bizi izateaz. Badakigu gutxiengo aberatsaren produkzio- eta kontsumo-estiloa planeta osora hedatzea ezinezkoa dela, alde batetik solidarioa ez delako eta bestetik ekosistemak sunsituko lituzkeelako. Egocera horren aurrean behar-beharrezkoa da mundu-mailan hainbat neurri eta politika ezartzea, kontsumoak eta naturaren ustiapena moteltzeko.

Bestalde, presio-talde boteretsuen aldean haien ondorioak hutsalak direla badirudi ere, praktika indibidualak ere moteldu egin behar dira. Hiritar askok ekarritako harri-koskorrek ekonomia-indarren joera alda dezakeen iritzi publikoa osatzen dute. Horregatik itunaren kultura eta hiritarren ekintzak dira krisi- eta ziurgabetasun-egoera honetan jokatzeko modurik egokienak. Izan ere, gauzak horrela gobernuen politikek, nazioarteko akordioek eta tokiko eta banakako ekimenez gure mundaurengo egoera ekologikoa hobetzen lagundu dezakete eta lagundu behar dute.

Azken hiru hamarkadetan iritzi-egoera hori sortzen eta ingurumenaren narriadurari dagokionez kontzientziak pizten, ingurumena bere osotasunean eta konplexutasunean ulertzen, ingurune hurbileko ingurumen-arloko arazoetan inplikatzeko eta errespetatu eta zaintzeko azturak ezartzen lagundu du ingurumen-hezkuntzak.

Orain hezkuntza-sistemari, eta zehazki ingurumen-hezkuntzari, dagokio garapen jasangarriaren norabidea indarrez hartzea eta ingurumenaren azterketa integratua egiteko eta lankidetzara garatu eta sustatzeko estrategia eta baliabideak planteatzea.

Aurkibidea

1. atala. Eskolaren ordua.

- 1.a. Jasangarritasunerantz bideratutako heziketa.
- 1.b. Tokiko Agenda 21
- 1.c. Ikastetxeak eta Tokiko Agenda 21

2. atala. : Eskolako Agenda 21. Eskolarentzako gida.

- 2.a. Zer da Eskolako Agenda 21?
- 2.b. Zein dira Eskolako Agenda 21aren helburuak?
- 2.c. Zein gai lantzen ditu Eskolako Agenda 21ak?
- 2.d. Nork eta nola parte hartzen du Eskolako Agenda 21ean?
- 2.e. Nola antolatzen da Eskolako Agenda 21?
- 2.f. Nola ebaluatzen da Eskolako Agenda 21?

3. atala. Baliabideak eta informazioa

- 3.a. Material didaktikoa eta helbide elektroniko interesgarriak.
- 3.b. Ingurumen-hezkuntzako ekipamenduak.

4. atala. Lan-oharrak


Eskolako Agenda 21ek ikasleei beren ingurumen hurbilaren arazoa aztertu eta ulertzea ahalbidetzen die eta hiritar gisa bizitzekoagoa eta ekologikoki jasangarriagoa izango den gizarte baten alde aritzeko prestatzen ditu.

Eskolako Agenda 21 hezkuntza-komunitateak hartutako konpromisoa da, ikastetxeko eta bere inguruko ingurumenaren kalitatearen eta jasangarritasunaren alde lan egiteko.

Konpromiso horrek berekin dakar ingurunea eza-




gutzeko interesa izatea, bidegabe dena aldatu nahi izatea eta guztion orainaren eta etorkizunaren alde lan egiteko gogoia izan eta konpromisoa hartzea. Oinarrizko hiru osagai ditu: ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren jasangarritasuna, curriculumaren berrikuntza eta komunitatearen parte-hartzea.











Eskolako Agenda 21en helburua da "gizakiaren-gizartearen-ingurumenaren" arteko harremanak hobetu eta bizi-kalitatearen eta ingurumen-kalitatearen arteko oreka dinamikoa sortu edo eusteko bakarka edo taldean esku hartu nahi duten hiritar aditu eta arduratsuak lortzea.

Eskolako Agenda 21 hainbat xede, helburu, ekintza eta baliabideren multzoa da eta hezkuntza-komunitatea garapen jasangarriarekin eta etorkizun bidezkoago eta ja-



sangarriago baten eraikuntzarekin konprometitzeko gaituko duten kontzientziaren, gaitasunaren, ezagutzen eta baloreen garapena lortzeko sortu da.


Eskolako Agenda 21aren helburuak

-  • Ikastetxeko eta udalerriko ingurumenaren kalitatean eragina duten erabakiak hartzeko egitura bat sortzea.
-  • Ikastetxean eta udalerrian modu jasangarriago batean bizitzen hasteko akordiotara iristea.
-  • Hezkuntza-komunitateko partaide guztien arteko koordinazio-mekanismoak sendotzea.
-  • Tokiko Agenda 21ean parte hartu eta gizarte- eta lurralde-ingurunean integratzea.
-  • Ikastetxeko eta ingurunekeo gizarteari eta ingurumenari dagozkien gaiak identifikatu, aztertu eta alternatibak proposatzea, foroetan ezagutaraztea eta ingurunearen erabilera jasangarria lortzeko prozesuak abiaraztea.
-  • Ikasleak beren ikastetxeko eta beren udalerriko ingurumenaren kalitatean eragina duten kontuetan parte hartu, lagundu, erabakiak hartu eta inplikatzeko ohitzea.
-  • Ikastetxea ingurumenarekin arduratsua eta errespetutsua den praktika baten eredu bilakatzea.
-  • Curriculuma garapen jasangarriak dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko egokitzea.

Ikastetxeko eta hiriko ingurumen-kudeaketari dagozkion oinarrizko gaiak Eskolako Agenda 21ean aztertu, berrikusi eta hobetzen dira.

Rioko Biltzarretik hona igaro diren urte haue-
tan, orduan hainbat akordio sinatu ziren arren, in-
gurumenaren krisia areagotu egin da, pobreen eta
abersatsen arteko distantzia handitu egin da eta
Iparraldetik Hegoalderako laguntza ekonomiko
eta teknologia-transferentzia gutxitu egin dira.

Klima Aldaketari, Biologia Aniztasunari eta
Desertifikazioari buruzko Hitzarmenak arian-arian
indarrean sartu ziren Rioko Biltzarren ondorengo
urteetan eta 100 herrialde baino gehiagok berretsi
dituzte, baina egutegiak eta helburu kuantitatiboak
(igorpenen murrizketa edo laguntza ekonomikoak) mu-
rriztu egin dira, atzeratu egin dira edo bete gabe geratu dira.



Mundu-mailako arazo hauek udalerrian eta
ikastetxean islatzen dira neurri batean edo bes-
tean. Nabaria da bai hirian bai eta ikastetxean
ere baliabide batzuk kontsumitzen direla, hon-
dakin batzuk sortzen direla eta, jendea autoz
nahi autobusez ibiltzen denez, klima-aldake-
tan edo baliabideen agortzean eragina dutela,
adibide batzuk aipatzearen.

Ikastetxeko edo hiriko ingurumen-
kudeaketari dagozkion eta jasangarritasuna-
ren adierazle gisa azter daitezkeen oinarrizko
gai hauek Eskolako Agenda 21ean berrikusi eta hobetu
daitezke.

Eskola-ingurunearen kudeaketa jasangarria

Eraikina eta barneko eta kanpoko ingurunea (osasuna, aniztasuna, ergonomia, eko-eraginkortasuna, segurtasuna)	Hotsa (gutxitzea, isolatzea)	Hondakinak eta birziklapena (murrizketa, berriz erabiltzea, birziklapena)	Materialak eta baliabideak (eraginkortasuna, toxikotasun-eza)	Energia eta ura (aurrezte, eraginkortasuna, iraupena, poluzio-eza, berriztapena)	Garraioa (mugikortasuna, segurtasuna, poluzio-eza)
<ul style="list-style-type: none"> • Isolamendua, argiztapena eta aireztapena. • Ikasgela eta korrido-reetako dekorazioa. • Jolasguneen, espazio komunaren eta hiri-ekipamenduaren berrantolaketa: hesiak, zuhaitzak, bankuak, aparkalekuak, edukiontziak, pape-rontziak, etab. • Biodibertsitatea (baratzeak eta berdeguneak, urmaelak, narturguneak, etab. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelen eta maki-na-gelen isolamendua. • Hots-maila. • Osasunean eragin-dako ondorioak. • Gutxitzea (kristal bikoitzak, gortinak, kortxoak...) 	<ul style="list-style-type: none"> • Paperaren erabilera murriztea, erabili-tako papera apro-betxatu eta berriz biltzea. • Hondakinen bilketa selektiboa (inprima-gailu-kartutxoak, CD-romak, disketeak, etab.) • Ontzi, jantzi eta ob-jektuak berriz era-biltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Paper birziklatua. • Garbiketa-produktuak, lekedak, zu-zentzekoak, pinturak, etab., ez-toxi-koak. • Enbalajeen minimi-zazioa. • Eskola-menu osa-sungarriak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Argiak, berokuntza-sistema, makina eta fotokopiagailuak, tangak, ur-tutueriak, etab. kontrolatu, zain-du eta mantentzea. • Tanga, konketa, urez-taketa, eta abarretan sistema murriztaile eta eraginkorrak era-biltzea. • Beroa gordetzea. • Energia berriztaga-rriak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ibilgailu pribatuak gutxiago erabiltzea. • Autobusen kontrola (kea, segurtasuna, etab.) • Oinezkoentzat jarri-tako zonak. • Bidegorriak eta bizi-kletentzako aparkale-kuak prestatzea. • Inguruko bide-segur-tasuna.

Eskolako Agenda 21ak metodoei eta edukiei dagozkien curriculumaren hainbat alderdi aztertu behar ditu, beste ezeren gainetik ikasleei, beren mailan, ingurumen hurbileko arazoak ezagutu eta ulertzea ahalbidetuko dien hezkuntza-praktika bat izan nahi baitu.

Gai fisiko eta materialez gain, ikastetxearen hezkuntza-funtzioak curriculumaren edukiak, gizarte-ratze-prozesuak, ikastetxeko giroa eta metodoak az-



tertzeira eramango gaitu. Izan ere, alderdi horiek baliabideei, hondakinei eta energiari dagozkienak bezain garrantzitsuak dira, beren eboluzioa ebaluatzea zailagoa den arren.

Curriculumaren Berrikuntza

Parte-hartzea.	Diziplinartekotasuna	Kudeaketa demokratikoa	Gizarte- eta ingurumen-arazoaren azterketa	Bizikidetz (Ikastetxeko giroa)	Talde-lana (Elkarlana)	Helburuen-Metodologiaren arteko koherentzia	Kalitatea eta giza garapena
<ul style="list-style-type: none"> Banakako konpromisoa Estamentu desberdinen parte hartzeko moduak. Parte-hartzearen maila. Batzorde mistoak (irakasleak, familiak, etab.) 	<ul style="list-style-type: none"> Diziplinarteko proiektuak Zeharkako tratamendua Bizitzarako prestatzea Koordinazioa (diziplinen, departamentuen, estamentuen eta abarren artean) 	<ul style="list-style-type: none"> Estamentu desberdinen inplikazioa Ikasleenganako, familien ganako, etab. onarpena eta konfiantza. Ikuspegi partekatua Erabaki adostuak 	<ul style="list-style-type: none"> Inguruneko errealitatea ikertzea Eskala eta testuinguru desberdinak aintzat hartzea Ikuspegi globala /tokikoa Arazo errealekin lan egitea 	<ul style="list-style-type: none"> Gatazka onartu eta arautzea Kohesioa eta begikotasuna Ikastetxearekiko identifikazioa Negoiazioaren praktika Harremanei eta gatazkei buruzko lana 	<ul style="list-style-type: none"> Talde-lana (ikasleak eta irakasleak) Departamentuak eta Batzordeak Zeregin eta erantzukizunen banaketa. Ikaskuntza-komunitatea 	<ul style="list-style-type: none"> Parte hartzeko metodologია Ziurgabetasuna onartzea Edukiak erlazionatu eta integratzea Estrategia, taldekatzea eta metodoen aniztasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Giza ongizatea helmuga gisa Bortizkeria birtarteko gisa arbuizatea Giza garapena ekonomia garapenaren gainetik Jendea ikastetxearekin gustura egotea. Garapen pertsonala eta autoestimua

Ingurumena eta ikastetxearen ingurumen-kudeaketari dagozkion alderdiak ezagutzeak ikasleek beren ikastetxearen eta beren ingurunearen kudeaketan modu arduratsuan aritu eta parte hartu ahal izateko balio izan behar du.

Eskolako Agenda 21ak parte-hartzea eta hau antolatze modua, ikasleen eta gutxiengoen gizarteratzea eta integrazioa, kultura demokratikoa eta guztion parte-hartzea aztertzen



ditu, gizarte jasangarri batean funtsezkoak eta berezkoak baitira eta, izan ere, Eskolako Agenda 21ak era horretako gizartea sortzen lagundu nahi du.

Komunitatearen parte-hartzea

Komunitateko baliabideen aprobeixamendua	Komunitatean sartzea	Desberdintasunen konpentsazioa	Tokiko Agenda 21ean parte hartzea.	Komunitatearekiko zabaltea	Dinamizazio soziala	Komunitateko hezkuntza-agenteen integrazioa	Guztiona denaren balorazioa
<ul style="list-style-type: none"> • Kultura- eta ingurumen-baliabideak erabiltzea. • Beste erakunde batzuetako programetan parte hartzea. • Udal-ekipamenduak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitateko arazoetan inplikatzeko. • Tokiko administrazioarekiko harremanak. • Hiriaren historia eta bilakaera ezagutzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sexuaren araberako estereotipoak desagerraraztea. • Aniztasuna ezagutu eta baloratzea • Programa konpentsatzaileak • Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen integrazioa. • Etorikin-familien integrazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolan parte hartzeko foroak. • Ingurumen eta giza-diagnostikoa • Hobekuntza-proposamenak • Ingurumen-hezkuntzaren hedapena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola komunitate-ekipamendu gisa (liburutegia, kirol-instalazioak, etab.) • Informazioa: arintasuna, gardentasuna,... • Lan eta ikerketei dagokien komunikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Auzo-eskola. • Eskolaz kanpoko programak • Auzorako eta komunitaterako zerbitzuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaskuntza-komunitatea • Boluntariotzako jarduerak. • Ezagutzen eta esperientzien ekarpena (profesionalak, helduak, etab.). • Talde-lana eta elkarlana. 	<ul style="list-style-type: none"> • Publiko denaren balioa lantzea (zerbitzuak, guneak, etab.) • Komunitatearen ondare arkitektonikoa, naturala, etab. aztertu eta baloratzea. • Kudeaketa banatua.

Puntu hauetako edozein izan daiteke Eskolako Agenda 21aren diagnostiko, plangintza eta ekintzarako gai, baina banan banan aztertzen badira ere, Eskolako agenda 21aren oinarrizko hiru zutabeei erantzun dieten aspek-

tuak landu beharko dira gutxienez: ikastetxearen edo ingurunearen kudeaketa jasangarria, ingurumen-hezkuntza eta Tokiko Agenda 21eko foroaren bitartez ingurunean parte hartzea.

Gurasoek, administratzaileek, irakasleek, ikasleek eta, azken batean, ikastetxea errealitate hurbilago eta komunitatean integratuago dagoen gune parte-hartzaile, plural, kritiko eta osasuntsu bilakatu nahi duten guztiek parte har dezakete Eskolako Agenda 21en eraketan.

Agenda 21aren eraketa-prozesuan garrantzitsua komunikazio eta bizipen demokratikoko guneak sortzea da, bertan aniztasuna eta gutxiengoak errespetatu, erabakiak hartu, alternatibak eztabaidatu eta tokiko ingurunearen alde lan egin dadin. Dimentsio hiritar hau berezko du Agenda 21ak, horregatik da garrantzitsua Eskolako Agenda 21 eskolako hormetatik atera eta udalerrian entzutea eta, bidez batez, Tokiko Agenda 21 abiarazi duten udalerriek eskolako proiektuak bultzatzea, urteko proiektuak gai berean oinarritu daitezten eta haien emaitzak, kritikoak nahiz alternatiboak, erakundeetan entzunak



izan eta lurraldeko jasangarritasuna lortzeko ideia gisa aintzat hartuak izan daitezten.


Honek ez du bazterten ikastetxe batzuek beren kabuz jasangarritasunerako eskola-planak egiteko aukera izatea, baina segur aski udal-mailako ekintza koordinatuak hobeto lagunduko du ikasleak etorkizunari dagokionez maiz adierazten duten pesimismo-egoeratik askatzen eta, aldi berean, haien kontzientzia eta erabakiak hartu eta guztion ongizateari laguntzeko duten gaitasunarekiko konfiantza indartuko ditu.



Eskolako Agenda 21 gizarte jasangarri eta bidezko bat eraikitzen lagundu nahi duen taldeko hezkuntza-proiektu bat da, eta horretarako praktika demokratikoez eta helburu horiekiko koherenteak diren antolamendu-formez baliatzen da.

Eskolako Agenda 21 ikastetxean jasangarritasunera bideratutako kultura-aldaketa bat ezartzeko bide bat da eta bide horretan guztiak izan behar lukete erabakiak hartzeko eskubidea eta gaitasuna. Garrantzitsua da parte-hartzaile guztiak negoziatzioko elementu, dinamika eta faseetan trebatzea. Horretarako nor bere interesak, baloreak eta guriak ezagutzen eta adierazten jakin behar du eta besteenak enpatiaz ulertu behar ditu; ondoren, hainbat eztabaida eta argudioen ondoren, itundu eta adostasunak lortzera iritsi behar du.

Lan egiteko modu hau motela da, baina zuzena,



eztabaidan esku hartzen duten pertsona guztiak azken erabakia beraiek hartua balitz bezala onartzen dutelako.

Eskolako Agenda 21aren eraketaz hitz egiten ari garenez, ezin dugu ahaztu, prozesua hezigarria izan dadin, edukiek eta hezteko moduek helburuekiko koherenteak izan behar dutela. Garatu nahi diren baloreek ezin dute izan ikastetxeko eguneroko bizitzan lantzen direnekiko antitetikoak; horregatik, ezinbestekoa da gure heziketa-moduei dagokienez etengabeko autokritika egitea, horiek aldatu eta hobetzeko asmoz eta justizia sozialaren, elkartasunaren eta natur sistemen zaintzaren idealekin bat etor daitezten.

Prozesua

1

Udalak Tokiko A21en bitartez dei egiten die ikastetxeei, beren ikastegi edo udalerrietako ingurumen-kudeaketan parte har dezaten.

2

Klaustroak eta Ordezkaritza Organo Gorenak Tokiko Agenda 21ean parte hartzea onartzen dute eta jasangarritasunaren helburuekiko koherentea izango den Eskolako Agenda 21 garatzea erabakitzen dute.

3

Ikastetxeko Ingurumen Batzordea antolatzen da. Honek bere diagnostikoa egin eta foroarrentzako lan-proposamenak egiten ditu.

4

Eskoletako parte-hartze Foroak ikasturtean zehar lehentasuna zein alderdiri emango zaion erabakitzen du.

5

Plan bat zehazten da arazoa, dagozkion adierazleak eta ekintza-ildoak zehazteko.

6

Aztertutako arazoari erantzuneko dioten kudeaketa-neurriak, curriculum-jarduerak eta komunitatean parte hartzeko jarduerak programatzen dira.

7

Eskoletako parte-hartze Foroan datuak eta prozesua aztertzen dira, ondorioak ateratzen dira eta hobekuntzak eta alternatibak proposatzen dira.

8

Ingurumenari buruzko urteko memoria idazten da, Udal Foroan aurkezten da eta Udalbatzan aztertzen da.

9

Eskolako Agenda 21, ebaluatu eta eguneratu ondoren, Curriculum Proiektuetan sartzen da.

Adierazleak non kokatuta gauden, zein norabide hartu dugun eta gure helburuetatik hurbil edo urrun gauden ulertzen laguntzen diguten aldagaien irudikapen neurgarriak dira. Hezkuntza-adierazleen artean ezinbestekoak dira testuinguruaren adierazleak (gizarte-, ekonomia- eta kultura-maila), baliabide material, pertsonal eta finantzarioen adierazleak (ikasle eta urte bakoitzeko gastuak, ratioak, etab.) eta proba estandarizatuetakoa emaitzen adierazleak. Baina gida honetan ezin dugu hartu halako espektro zabala eta eskolako Agenda 21en prozesu garrantzitsuenei buruzko adierazleak eskaintzen ditugu: alegia, ikastetxearen kudeaketa jasangarria, curriculumaren berrikuntza eta komunitatearen parte-hartzea.

Udalerrri, enpresa, erakunde eta abarreko ingurumenaren egoerak denboran zehar izandako eboluzioa ebaluatzeko eta egoerak hobetuz edo okertuz doazen egiaztatzeko ingurumen-kudeatzaileek erabiltzen dituzten tresnak dira adierazleak.

Adierazleak errealitate konplexuak sinplifikatzen dituzte beti eta are gehiago gizartekoitasuneko, garapen pertsonaleko, ezagutzako, bizikaltateko eta abarreko prozesuez ari garenean.

Guztion artean adierazle onenak erabakitzea da benetan interesatzen dena, eskola-komunitateak ikastetxeko gaietan duen parte-hartzearen,



kontsumismoari ezarritako balaztaren, ingurumen-inpaktuen murrizketaren, oinarriko komunikazio-gaitasunen, biodibertsitatearen, jasangarritasunaren eta kohesio sozialaren eta abarren maila eta kalitatea neurtzeko.

Ikus daitekeenez kontu handiz eta ebidentziak eta balorazio adostuak bilatuz egin beharreko zeregin zaila eta konplexua da.

Beraz, kontu handiz hartuko dira ondoren adierazitako adibideak ere. Komunitate bakoitzeko partaideei dagokie hauek eztabaidatu eta berriz zehaztea, beren kontraesanak bilatu, baloreak aztertu eta ekintzan esku hartzeko.

ESKOLAKO AGENDA 21EKO ADIERAZLEAK

ESKOLAKO AGENDA 21EKO ADIERAZLEAK		
KUDEAKETA JASANGARRIAREN ADIERAZLEAK	1.	Ikastetxeak klima-aldaketa globalari egiten dion ekarpena.
	2.	Eskolako berdeguneak
	3.	Mugikortasuna eta eskola-garraioa
	4.	Hotsa
	5.	Hondakinen kontsumoa, erabilera berria eta birziklapena
	6.	Hondakinen murrizketa
CURRICULUMAREN BERRIKUNTZAREN ADIERAZLEAK	7.	Ikuspegi partekatua.
	8.	Diziplinarteko koordinazioa.
	9.	Talde-lana
	10.	Bizikidetza (ikastetxeko giroa)
	11.	Prestakuntza
	12.	Curriculumaren berrikuntza
KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEAREN ADIERAZLEAK	13.	Jendeak ikastetxearekin duen gogobetetze-maila
	14.	Komunitatean sartzea
	15.	Sexuaren araberako estereotipoen desagertzea
	16.	Guztiona denaren balorazioa
	17.	Demokrazia
	18.	Informazioa eta komunikazioa

1. Ikastetxeak klima-aldaketa globalari egiten dion ekarpena

Testuingurua	Ikastetxe jasangarri bat arduratsua da klima-aldaketaren arazoarekiko, erregai-iturri fosilen energia-kontsumoa murriztu eta arian-arian energia alternatiboak sartu behar ditu.
Helburuak	Kyotoko konferentzian 2010. urterako negutegi efektua duten gasen produkzioa 1990ko mailetara jaitea xedatu zen. Europako Batasunak gasen produkzioa % 8n murriztea erabaki zuen. Estatu eta eskualde desberdinek murrizketa zorrotzagoak ezarri dituzte. Ikastetxe batean fuel-olioaren edo gasaren kontsumoa elektrizitatearen kontsumoa eta garraio pribatuaren erabilera %10etik %20ra bitartean murrizteko helburuak planteatu daitezke.
Neurketa-unitatea	Fuel-olio/gas/elektrizitatearen kontsumoa eta auto partikularren kopurua.
Tresna	Ordainagiriak eta kontagailuen irakurketa, eta ibilgailuen kontrolerako galde-sorta.
Maiztasuna	Urtean behin edo bi urtean behin.
Irudikapena	Elektrizitatearen eta Fuel-olio edo gasaren kontsumoaren grafikoa eta ikastetxera iristen diren auto pribatuaren grafikoa.
Arduraduna	Ingurumen Batzordea

2. Eskolako berdeguneak

Testuingurua	Ikastetxe jasangarri batek berdeguneak baloratu eta sortu behar ditu, zonako dibertsitatea islatu eta espazio horiek didaktikoki erabiltzeko.
Helburuak	Ikastetxeetako jolastokietako edo ikastetxe barneko berdegune-kopurua handitzea edo jada daudenetan espezieen aniztasuna areagotzea.
Neurketa-unitatea	Berdeguneei (lorategiak, urmaelak, baratzeak, etab.) eskainitako ikastetxearen azaleraren %
Tresna	Eskola-esparruaren planoak
Maiztasuna	Urtean behin edo bi urtean behin
Irudikapena	Sektoreen diagrama
Arduraduna	Ingurumen Batzordea

3.

Mugikortasuna eta eskola-garraioak

Testuingurua	Mugikortasuna eta eskola-garraioa bide-segurtasunak baldintzatzen ditu. Etxetik eskolara eta eskolatik etxerako ibilbidea oinez edo bizikletaz egin dezaketean ikasle askok familiaren auto pribatua erabiltzen dute segurtasun-arazoak direla eta.
Helburuak	Zentrora joaten diren ibilgailu pribatuen kopurua murriztea.
Neurketa-unitatea	Ibilgailu pribatuen kopurua
Tresna	Ibilgailuen kontrol-fitxak
Maiztasuna	Urtean behin edo bi urtean behin
Irudikapena	Grafikoak, auto pribatuen erabiltzaileen %arekin, garraio publikoaren erabiltzaileen %arekin eta oinezkoen edo bizikleta-erabiltzaileen %arekin.
Arduraduna	Ingurumen Batzordea

4.

Hotsa

Testuingurua	Poluzio akustikoa jasateak, ondorioak eragiten ditu osasunean eta ongizatean eta ikasgelen barruan ikasleen eta irakasleen kontzentrazioa eta arreta nahasten ditu.
Helburuak	Kanpotik datorren hots-maila 60 dBtik behera gutxitzea.
Neurketa-unitatea	Ikasgela eta gela huts desberdinetan eguneko ordu desberdinetan, goiz eta arratsaldean, neurtutako dezibelioak.
Tresna	Sonometroak
Maiztasuna	Urtean behin edo bi urtean behin
Irudikapena	Ikastetxearen soinu-mapa, 60 dB gainditzen diren zonak kolore gorritz adierazita.
Arduraduna	Ingurumen Batzordea

5. Hondakinen kontsumoa, erabilera berria eta birziklapena (ura, papera*, materialak,...)

*Adierazle-adibide hau paperaren kontsumoari, erabilera berriari eta birziklapenari bakarrik dagokio

Testuingurua	<p>Papera da ikastetxeetan gehien kontsumitzen den materiala. Ikastetxe askotan kontsumo honek funtzionamendu arrunterako urteko aurrekontuaren %50 gainditzen du.</p> <p>Gutxi erabilitako papera berriz erabiltzea, paper birziklatua erabiltzea eta birziklatzeko behar bezala bereiztea ikastetxe jasangarri batek sustatu behar dituen neurriak dira. Horiek guztiek energia-kontsumo txikiagoa eta poluzio gutxiago dakarte.</p>
Helburuak	Paper berriaren kontsumoa %20 murriztea.
Neurketa-unitatea	Urtebetean kontsumitutako paperaren kostua.
Tresna	Ordainagiriak
Maiztasuna	Bi urtean behin
Irudikapena	Grafikoa
Arduraduna	Ingurumen Batzordea

6. Hondakinen murrizketa

Testuingurua	<p>Ikastetxeetan sortzen diren hondakinen zati handi bat paper- eta kartoi-hondakinak dira (5. adierazlean aztertutako aldagaia), baina oso toxikoak direnez ez dira ahaztu behar laborategian eta instalazioen garbiketan sortzen diren hondakin likidoak. Gainera, jantokiak dituzten ikastetxeetan, egunero zaborretara botatzen diren materia organiko eta ontzien kantitatea handia da. Eskolako A 21 proiektu batean "erabili eta botatzearen" kulturatik "birziklatu eta aprobeztatzearen" kulturara pasatu behar da, gure planetak baliabideak sortu eta hondakinak biltzeko duen ahalmena mugatua da eta.</p>
Helburuak	Ondokoen portzentaia handitu behar da: a) konpost bidez berreskuratutako hondakin organikoak b) berriz erabilitako ontziak, c) material iraunkorrak behin erabiltzeko ordez eta d) kaltegarriak ez diren produktuak toxikoen ordez.
Neurketa-unitatea	Berreskuratu edo ordeztutako hondakinen %
Tresna	Materia organikoarentzako baskula eta behin erabiltzeko eta garbiketako produktuentzako ontziak eta kontrol-fitxak.
Irudikapena	Grafikoa
Arduraduna	Ingurumen Batzordea

7.

Ikuspegi partekatua

Testuingurua	Ikuspegi partekaturik gabe edo sakonki eztabaidatu eta guztion artean landutako ideiarik gabe nekez egin daiteke hezkuntza-zeregina etikoki egokituko duen eta gizarte jasangarriaren etorkizunarekiko arduratsu izango den lan serio bat.
Helburuak	Dokumentu komunen (IHP; A21, ...) ezagutza eta Eskolako Agenda 21en proiektuarekiko interesa areagotzea.
Neurketa-unitatea	Jendearen %
Tresna	Galde-sorta
Maiztasuna	Bi urtean behin
Irudikapena	Grafikoa
Arduraduna	Ingurumen Batzordea

8.

Diziplinarteko koordinazioa

Testuingurua	Ingurunearen azterketak duen diziplinarteko izaerak eta Eskolako A 21aren dimentsio globalak (bilaketa, esperimentazioa, ezagutza, sentimendua eta ekintza) departamentu, arlo eta estamentu desberdinen arteko koordinazioa eskatzen dute.
Helburuak	Proiektu globalak programatzeko diziplinarteko batzorde pedagogikoak eratzea.
Neurketa-unitatea	Abiarazitako diziplinarteko proiektuak.
Tresna	Memoriak
Maiztasuna	Urtean behin
Irudikapena	Txosten-memoria
Arduraduna	Ikastetxeko zuzendaritza-taldea

9.

Talde-lana

Testuingurua	Eskolako Agenda 21 guztion zeregina da eta zerbaiten partaide izatearen zentzua eta hiritartasun-nozioa indartzen ditu. Eskolako Agenda 21ean bakoitzak bere gaitasunen eta ahalmenen ekarpena egiten dio guztion zeregin horri.
Helburuak	Beste batzuekin lan egiteko gaitasuna garatzea.
Neurketa-unitatea	Talde-lanak.
Tresna	Kontaketa
Maiztasuna	Urtean behin
Irudikapena	Egindako lanen txosten-memoria.
Arduraduna	Taldeetako koordinatzaileak

10.

Bizikidetza (Ikastetxeko giroa)

Testuingurua	Pertsonak ingurumenaren zati bat gara, hain zuzen gehien axola zaigun zatia. Parte-hartzearen, ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alde ezin dugu lan egin bizikidetza-giro egokirik gabe. Horrek ez du esan nahi gatazkarik izango ez denik, baina hauek behar bezala tratatzen eta konpontzen jakin behar dugu
Helburuak	Eskola-esparruan gertatzen diren erasoak murriztea eta dauden gatazkak behar bezala kudeatzea
Neurketa-unitatea	Demokratikoki ebatzitako gatazkak
Tresna	Gatazketan inplikaturako pertsonen egindako elkarrizketa
Maiztasuna	Urtean behin
Irudikapena	Txosten-memoria
Arduraduna	Bizikidetza Batzordea

11.

Prestakuntza

Testuingurua	Gizarte jasangarria eta demokratikoa eratzeko, guztiok beharrezkoa dugu ingurumen-sistemen konplexutasunari buruz prestatzea eta elkartasunaren, zuzentasunaren eta norbera eta besteak onartzearen baloreak barneratzea. Horrek irakasleen aldetik prestakuntza-konpromisoa izatea eskatzen du, garapen jasangarriaren baloreekiko koherentea izango den eta hezkuntza-praktika hobetzerara bideratuta egongo den prestakuntzarako konpromisoa, hain zuzen.
Helburuak	Hezkuntza-praktikari buruzko hausnarketa egin, ikertu eta praktika hori hobetuko duten irakasle-talde egonkorrak osatzea.
Neurketa-unitatea	Taldeko hausnarketari eta prestakuntzari eskainitako ordu-kopurua.
Tresna	Kontaketa
Maiztasuna	Urtean behin
Irudikapena	Txosten-memoria
Arduraduna	Klaustroa

12.

Curriculumaren berrikuntza

Testuingurua	Ezagutzaren eta gizakiaren ikuspegi holistikoa (kognitiboa, soziala, emozionala) komunitatean autonomia eta identitate pertsonalarekin parte hartzeko ikaskuntza baliagarriak ahalbidetuko dituen curriculum batean zehaztu behar da.
Helburuak	Gizarte jasangarri eta zuzen baten ikuspegi partekatuari erantzungo dion curriculum bat eratzeko antolamendu-baldintzak hobetzea.
Neurketa-unitatea	Proiektu berritzaileak
Tresna	Kontaketa
Maiztasuna	Urtean behin edo bi urtean behin
Irudikapena	Txosten-memoria
Arduraduna	Proiektuaren koordinazio-taldea

13. Jendeak ikastetxearekin duen gogobetetze-maila

Testuingurua	Ikastetxe jasangarriaren edo gizarte jasangarriaren osagai garrantzitsu bat jendearen ongizate orokorra da. Honek ikastetxe batean esan nahi du baldintza fisiko, ingurumen-baldintza (argiztapena, temperatura, espazioa, etab.) eta komunikatu eta ikasten ikasteko baldintza onak izatea.
Helburuak	Jendeak ikastetxearekiko duen gogo-beteze maila hobetzea
Neurketa-unitatea	Jendearen %
Tresna	Gutxienez komunitateko estamentu bakoitzaren (familiak, ikasleak, irakasleak, etab.) laurdenari pasatuko zaion galde-sorta.
Maiztasuna	Urtean behin edo bi urtean behin.
Irudikapena	Grafikoa
Arduraduna	Ingurumen Batzordea

14. Komunitatean sartzea

Testuingurua	Ikastetxea hainbat elementu pertsonal eta material biltzen dituen sistema txiki baten moduan uler dezakegu, elementu horien artean harremanak eta elkarreraginak daudelarik. Halere, sistema hori ez dago isolatuta, aitzitik, kokatuta dagoen komunitatean integratzen da. Eskolako Agenda 21 bide egokia da integrazio hori sustatzeko
Helburuak	Tokiko Komunitatearekiko hartuekanak hobetzea
Neurketa-unitatea	Komunitateko agenteekin lankidetzan burututako jarduerak.
Tresna	Memoria
Maiztasuna	Urtean behin
Irudikapena	Txosten-memoria
Arduraduna	Guraso Elkarteak

15. Sexuaren araberako estereotipoen desagertzea

Testuingurua	Garapen jasagarriak, ingurumenaren aldetik osasuntsua, ekonomikoki bideragarria eta sozialki bidezkoa izango den garapena esan nahi du. Beraz, Agenda 21ak justizia sozialaren eta aukera-berdintasunaren alde lan egitea eskatzen duen gizarte-osagai garrantzitsu bat du, besteak beste, sexuaren ondoriozko desberdintasunak baztertuz. Desberdintasun horiek zuzendu eta emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko, funtsezkoa da desberdintasun horrek oinarri dituen estereotipoekin behin eta berriz lan egitea.
Helburuak	Eskolako dokumentuetan sexuaren araberako eduki eta irudi estereotipatuen kopurua murriztea eta emakumeen eta gizonen ikuspegi orekatua, anitza eta desberdina transmititzen dituztenak gehitzea.
Neurketa-unitatea	Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistari dagokion dokumentu-kopurua.
Tresna	Kontaketa.
Maiztasuna	Urtean behin edo bi urtean behin.
Irudikapena	Txosten-memoria.
Arduraduna	Bizikidetzatza Batzordea.

16. Guztiona denaren balorazioa

Testuingurua	Ingurumena "guztion ondasun" baten adibide garbia dugu. Gure bizi-kalitatea haren egoeraren menpe dago. Guztioak dugu erantzukizun bat haren kudeaketan. Era berean, guk osatzen ditugun komunitate desberdinek ere (tokoak, eskolak, etab.) guztionak diren hainbat ondasun eta zerbitzu dituzte, behar bezala baloratu behar ditugunak.
Helburuak	Ondasun, zerbitzu eta espazio komunak edota publikoak baloratu eta errespetatzea.
Neurketa-unitatea	Gorabeheren kopurua (hondatzeak, okerreko erabilerak, etab.)
Tresna	Kontrol-fitxa
Maiztasuna	Urtean behin
Irudikapena	Grafikoa
Arduraduna	Irakasle ez diren langileak

17.

Demokrazia

Testuingurua

Ikasleek balore demokratikoezko koherenteak diren aztura, jarrera eta portaerak garatzea ezinbestekoa eta hala-beharrezkoa da Eskolako Agenda 21 eratzeko. Garapen jasagarriak elkarlanaren, justizia sozialaren, erantzukizun banatuaren eta parte-hartzearen baloreak barneratu eta hauekiko modu koherentean bizitzea eskatzen du.

Helburuak

Ikasleek dituzten parte-hartze, erabaki-hartze eta negoziatzearako aukerak gehitzea.

Neurketa-unitatea

Balore eta arau jakin batzuei buruz ikasle eta irakasleen arteko akordio adostuak.

Tresna

Parte hartzen duten ikasleen %

Maiztasuna

Urtean behin

Irudikapena

Onarpen eta erantzukizun banatuko konpromiso esplizitua.

Arduraduna

Ingurumen Batzordea

18.

Informazioa eta komunikazioa

Testuingurua

Ideiak adierazteko askatasuna, informazioaren hedapen garden eta xumea eta elkarrizketa desadostasunak konpontzeko modu gisa gizarte jasagarri baten oinarritzko osagaiak dira.

Helburuak

Eskolako Agenda 21 proiektuaren dokumentazioa antolatzea, modu erakargarrian ezagutaraztea eta informazio-ko eta zabalkunderako bideak hobetzea.

Neurketa-unitatea

Jendearen %

Tresna

Galde-sorta

Maiztasuna

Urtean behin edo bi urtean behin.

Irudikapena

Grafikoak

Arduraduna

Ingurumen Batzordea

Baliabideak eta informazioa



Nabarmena denez, Eskolako Agenda 21a bezalako talde-proiektu batean eskolak eskusibitatea galtzen du hezkuntza-baliabideen hornitzaile gisa.

Komunitate-hirian ugariak dira hezkuntza-baliabideak (museoak, liburutegiak, fabrikak, aisialdirako tokiak, hondakinen kudeaketa-zentroak, garraioa, ura edo energia, etab.), gizarte-agente desberdinak ahaztu gabe. Hauen eta ikasleen arteko harreman zuzenak hainbat emozio eragiten ditu eta hauek, transmititzen dituzten ezagutzekin batera, ondo barneratutako kontzeptuzko eta jarrerazko aldaketen oinarriak finkatzen dituzte

Hiri osoa lurralde pedagogiko bat da, eta Tokiko Agenda 21aren kudeatzaileek hori guztia koordinatu eta beren inguruko ikastetxeei eskaini behar diete. Gida hau mugatua denez, ezin ditugu hemen bildu baliabide ugari horiek.

Horregatik IIIHlek eta Ingurumen Saileko Ikerketa eta Interpretazio Zentroek landutako unitate didaktikoak bakarrik eskainiko ditugu.

Aurkibidea

1. atala. Eskolaren ordua.

- 1.a. Jasangarritasunerantz bideratutako heziketa
- 1.b. Tokiko Agenda 21
- 1.c. Ikastetxeak eta Tokiko Agenda 21

2. atala. : Eskolako Agenda 21. Eskolarentzako gida.

- 2.a. Zer da Eskolako Agenda 21?
- 2.b. Zein dira Eskolako Agenda 21aren helburuak?
- 2.c. Zein gai lantzen ditu Eskolako Agenda 21ak?
- 2.d. Nork eta nola parte hartzen du Eskolako Agenda 21ean?
- 2.e. Nola antolatzen da Eskolako Agenda 21?
- 2.f. Nola ebaluatzen da Eskolako Agenda 21?

3. atala. Baliabideak eta informazioa

- 3.a. Material didaktikoa eta helbide elektroniko interesgarriak.
- 3.b. Ingurumen-hezkuntzako ekipamenduak.

4. atala. Lan-oharrak

IIHII (Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak) direlakoetan hezkuntza-maila desberdinentzako material didaktikoa lantzen da, gelako programazioan ingurumen-arazo desberdinak sartzeari ahalbidetzeko eta gure erkidegoan normalean egiten diren ingurumenarekiko sentsibilizazio-kanpainetan ikastetxeen parte-hartzea bultzatzeko.

- Haur Hezkuntzarako unitate didaktikoak: "Animaliak eta landareak", "Baliabideak eta materialak" eta "Gure herria".
- Haur Hezkuntzarako "Inguru-minguru" ipuin-bilduma.
- Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako unitate didaktikoak: kutsadura, biodibertsitatearen galera eta ekonomia-jarduerek ingurumenean duten eragina.
- Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako unitate didaktikoak, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako paisaiari buruz.
- Ingurumenaren eta Lurraren Zientziei buruzko unitate didaktikoak Batxilergorako (CD-ROM).
- Pertsona Helduen hezkuntzarako unitate didaktikoak: "Eguneroko bizitzaren ekologia".
- Lanbide-arlo desberdinetako Heziketa Zikloetarako unitate didaktikoak: Sukaldaritza eta ingurumena, Elektrizitatea eta ingurumena, Eraikuntza eta ingurumena, Kutsatu gabe aztertzea, Informatika-sistemak eta ingurumena, Fabrikazio mekanikoa eta ingurumena, Ileapainketa eta ingurumena, Elikagaien industria eta ingurumena, Administrazioa eta ingurumena eta Nekazaritza eta ingurumena.
- Gida didaktikoak jasotzen dituzten kartelak: kostaldeko, ibaiko eta hiriko ekosistemak, eta eskola ekologikoa. Azken hau ondokoei buruzko ideia praktikoak dituzten foiltoekin osatzen da: papera, ura, animaliak, energia, etab.
- Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako Ibaialde eta Azterkosta unitate didaktikoak, eta kostaldeari eta ibaiei buruzko erakusketak.
- Eskolako baratzeari buruzko karpeta, baratzeako prozesuak, mantentze-lana eta zaintza ikertzeko fitxekin.
- "Eskolako eko-auditoria" eskuliburua.

Helbide elektroniko interesgarriak

www.ingurumena.net


www.emakunde.es

www.ceida.info

www.euskadi.net/aztertu

www.euskadi.net/vima_ea_ceida

www.euskadi.net/ihitza



BIZKAIA



IIHII



URDAIBAI

Udetxea Jauregia
Gernika-Lumoko errepidea z/g
48300 Gernika-Lumo
telf.: 94 625 71 25
faxes: 94 625 72 53
e-mail: urdaibai@ej-gv.es



BILBO

Ondarroa, 2
48004 Bilbo
A.C. 4015 P.-ku.
telf.: 94 411 49 99
faxes: 94 411 47 78
e-mail: ceida-bilbao@ej-gv.es

BESTE ZENTRO BATZUK



PEÑAS NEGRAS

La Arboleda basobidea- Muskiz, km 1,6
48530 Ortuella (Bizkaia)
Telf.: 94 633 80 97
Faxes: 94 474 58 75
E-mail: peñasnegras@ej-gv.es

GIPUZKOA



IIHII



DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Basotxiki, 5 (Intxaurrondo auzoa)
20015 Donostia-San Sebastián
A.C. 3271 P.-ku.
telf.: 943 32 18 59
faxes: 943 27 03 94
e-mail: ceida-donosti@ej-gv.es



LEGAZPI

Brinkola, z/g
20220 Legazpi
telf.: 943 73 16 97
faxes: 943 73 17 14
e-mail: ceida-legazpi@ej-gv.es

BESTE ZENTRO BATZUK



INGURUGIRO ETXEA

Loiola Auzoa, 1
20730 Azpeitia
telf.: 943 81 24 48
faxes: 943 81 24 48
e-mail:
ingurugiroetxea.azpeitia@azpeitia.net



EKOETXEA

PARQUE ECOLÓGICO DE PLAIAUNDI
Paseo de Pierre Loti
20304 Irun (Gipuzkoa)
telf.: 943 61 93 89
faxes: 943 61 93 89
e-mail: plaiaundi@terra.es

ARABA




IIHII



VITORIA-GASTEIZ

Baiona kalea, 56-58 (Lakua)
01010 Vitoria-Gasteiz
telf.: 945 17 90 30
faxes: 945 17 90 36
e-mail: ceida-vitoria@ej-gv.es

Lan-oharrak



Eskolako Agenda 21a sortzeko hasierako erabakia hartu ondoren, ingurumen-kudeaketako batzorde bat osatzea gomendatzen da. Batzorde honen lehenengo zeregina izango da Agenda 21a, bere filosofia eta prozedura ezagutaraztea, hausnartzea eta, ahal izanez gero, ikastetxearentzat eta ingurunearentzat etorkizunerako ikuspegi bat adostea. Ondoren, udalerriko ingurumen-diagnostikoa ezagutu eta Eskolan Parte Hartzeko Foroarengana jo behar du, konpondu nahi den ingurumen-arazo larriena zein den erabakitzeko.

Hemendik aurrera helburuak ezartzen dira, eta helburu horiek betetzeko ekintzak eta lortutako arrakasta baloratzeko adierazleak planteatzen dira.

Aukeratutako ekintzak eta helburuak curriculumeko, kudeaketako eta komunitatearen parte-hartzeko ekintzak batuko dituzten programetan konbinatzen dira. Horrekin batera, egiaztapen jakin batzuk aurreikusten dira ekintza guztiek batera funtzionatuko dutela bermatzeko, horrela jasangarritasuna bere zentzu hezitzaile eta zabalenean lortzeko: ingurumenean, gizartearen eta kulturaren.

Ondoren, proiektua abiarazten da etengabeko jarraipena eginez eta, ingurumenean dituen ondorioen eta ikaskuntzaren eraikuntzaren arabera, emaitzak ebaluatuz. Azkenik, txosten-memoria osatu eta Eskolan parte hartzeko foroan, Hiritarrek parte hartzeko foroan eta Udalbatzan aurkezten da.

Aurkibidea

1. atala. Eskolaren ordua.

- 1.a. Jasangarritasunerantz bideratutako heziketa.
- 1.b. Tokiko Agenda 21
- 1.c. Ikastetxeak eta Tokiko Agenda 21

2. atala. : Eskolako Agenda 21. Eskolarentzako gida.

- 2.a. Zer da Eskolako Agenda 21?
- 2.b. Zein dira Eskolako Agenda 21aren helburuak?
- 2.c. Zein gai lantzen ditu Eskolako Agenda 21ak?
- 2.d. Nork eta nola parte hartzen du Eskolako Agenda 21ean?
- 2.e. Nola antolatzen da Eskolako Agenda 21?
- 2.f. Nola ebaluatzen da Eskolako Agenda 21?

3. atala. Baliabideak eta informazioa

- 3.a. Material didaktikoa eta helbide elektroniko interesgarriak.
- 3.b. Ingurumen-hezkuntzako ekipamenduak.

4. atala. Lan-oharrak



1

Ikastetxeek Tokiko Agenda 21ean parte hartzea erabakitzen dute

2

Eskoletako parte-hartze Foroa osatzen da

3

Eskolako jasangarritasunaren adierazleak erabakitzen dituzte

4

Helburu orokorrak ezartzen dituzte

5

Lehentasuna ematen diete arazo batzuei

6

Ekintzak planifikatzen dituzte

7


Aplikatu eta egiaztatu egiten dituzte

8

Ebaluatu eta informatu egiten dute

9

Ondorioak udalbatzari jakinarazten dizkiote



L a n - o h a r r a k

1

Ikastetxeek Tokiko Agenda 21ean parte hartzea erabakitzen dute

2

Eskeletako parte-hartze Foroa osatzen da

3

Eskolako jasangarritasunaren adierazleak erabakitzen dituzte

4

Helburu orokorrak ezartzen dituzte

5

Lehentasuna ematen diete arazo batzuei

6

Ekintzak planifikatzen dituzte

7

Aplikatu eta egiaztatu egiten dituzte

8

Ebaluatu eta informatu egiten dute

9

Ondorioak udalbatzari jakinarazten dizkiote

Horizontal lines for writing the calendar entries.

